

GURE BIZITZA HUNAN

Doinua: Urki zelaiko puntan

1) Urrategi auzoko

baserri batean
bi bizitza elkartzen
ditun teilapean
bi andre bizi dira
pareko atean
kafesne baten bueltan
dauden bitartean
kontutan ari dira
beraien artean.

2) "Ume garaiko giro

mundu ta zapore
gazte denboran, gu bi
maiatzeko lore
hauek ez dizkinat nahi
neuretzako gorde"
"arrazoi daukan denak
kontatuta hobe
gehiegi isilduta
gauden ta leno're".

3) Ama titiko ume

ginela hil hunan
gu, berriz, baserrian...
lanak lan ditun han
baratzan, sukaldean
soroan itulan
etxeko ibilerak
hoietxek hitunan
heldu izaten oso
goiz hasi gintunan.

4) Plantxa eskutan hartu

nahikoa egin arte
nekeak bihurtzen din
lurrin arina, ke
prakak txukun lisatu
baita izkinak'e
orain plantxatu gabe
janzten dizkinate
boladatan ixiki*
ingo nizkinake.

*eseki

5) Gauzatu ginenean

eskolaratuak
maistra frankistenak
a zer mandatuak!
Ahotik zetozenan
gure bekatuak
euskeraz egindako
hitz debekatuak
odolez izan gaitun
alfabetatuak.

6) Mutilen kontra egiten

geninan pelotan
eta nik sartzen ninan
edozein txokotan
gantxoia ta dejada
aurreko koadrotan
irabazi ere bai
han norgehiagokan
beti ez dinat esango
baina bai askotan.

7) Asko ez geninan jaten

nire errezeloa...
baba eltzean eta
esnetan taloa
urdai puska batekin
zer erregaloa!
bazpare egunero
piztu poxpoloa
haizez ez dun betetzen
tripako zuloa.

8) Abade ta akolito

zeini ahazten zaizko!
Soro bedeinkatzea
hunak ohiturazko
ta guk izatekotan
kristau itxurazko
erregalatu behar
pare bat oilasko
muturreko lotsarik
ez zinaten asko.

9) Ta hori gutxi balitz
guardia zibila
txapel okerra baina
tinkoa fusila
bat beti etortzen hunan
gure firma bila
tripazale galanta
Burgosko mutila
nik uste txerria noiz
hil zan bazekila.

10) Aizpurutxon, Martitten
Urrategin bertan
festa izaten hunan
auzo guztietan
distantzi dezenteak
oinez, erdietan
gaur ez dun inor hasten
erokerietan
lau dantza egiteko
erromerietan.

11) Gure bizitza hunan
igoal ez gauza haundik
baina ikasteko zerbait
egongo dun handik
aurreraka joaten
hasten baitun lehendik
inork gehiago jakin
nahi balu gugandik
laurdenik ez dinagu
kontatu oraindik.

Amalaune.